



## HEZIBERRI, LOMCE ETA PISA AZTERKETEI PLANTO EGITEKO DEIA LUZATU DU HPT-K

Berriz ere, Hezkuntza Plataformen Topagunean ordezkutzen ditugun hezkuntza komunitateko norbanako zein batzorde edo plataformen aldetik beharra ikusi dugu hezkuntzan bizi dugun egoeraren larritasuna jendarteratzeko.

- LOMCE bete betean aplikatzen jarraitzen dute izen horrekin edo Heziberri-rekin. Hezkuntza komunitatearen eta eragileen gehiengoaren eskaerei muzin eginez, Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernuak lege eta dekretu horien ezarpenean aurrera egitea erabaki dute. Kanpo ebaluazio sistema aplikatu eta inposatzea erabaki dute. Eta horren ondorioak larriak dira ikasleentzat, eskola komunitate guztiarentzat eta gure herriarentzat.
- Beste behin ere, Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailek, ebaluazio sistema propio eta hezitzailearen norabidean pausuak emateari uko egin diote eta kanpo interesei erantzuten dien ebaluazio-kalifikazio sistema aplikatzea erabaki dute.
- Jakin berri dugu, aurten ere, azterketa eta errebaliden karrera zoro batetan murgiltzera kondenatu nahi dituztela gure lurraldeetako hainbat ikastetxe. Hau da aurtengo oztopo lasterketa, martxoaren 5ean hasi eta ekainean bukatuko dena. Azterketaz beteriko 4 hilabete. 6 azterketa:
  - ISEI-IVEIren ebaluazio diagnostikoa LH 4. maila + DBH 2. mailan
  - LOMCE/Heziberri LH 6. mailan + DBH 4. mailan
  - PISA 15 urteko ikasleentzat
  - Selektibitatea batxilergoa bukatzean
- ISEI-IVEIrenak alde batera utzita, gainontzeko guztiak ikastetxetik kanpo erabaki dira, gure sistematik at; ikastetxearen ibilbide eta planei kanpotik ezartzen zaizkien azterketak dira; ikastetxeen ezaugarri zein errealtateak eta berdin ikasleenak ere kontutan hartu gabe inposatzen diren azterketak dira. Madrilen erabakitakoak dira. Egoera itogarri hau jasangaitza da.
- HPT-n, EBALUAZIO HEZITZAILEAZ aritu ginen hausnartzen iaz. Gaur, han ireki genuen bidean berretsi eta gure herriarentzako Ebaluazio Sistema Propioaren aldarrikapena egin nahi dugu. Era berean, kalifikazio eta etiketatzeak baztertuko dituen Ebaluazio Hezitzailearen aldeko mezua zabaldu nahi dugu.
- Horregatik, eta irizpide horiek oinarri hartuta, aurten ere, **PLANTO egiteko deia luzatzen dugu**. Madrilen erabaki dituzten, inposatuak zaizkigun, eta inongo eragin akademikorik ez duten azterketei planto. Planto inposatutako Lomce/Heziberriren ondorio diren LH 6 eta DBH 4ko azterketei, zein planto PISA azterketei.





## HPT LLAMA A HACER PLANTO A LOS EXAMENES DE HEZIBERRI, LOMCE Y PISA AZTERKETEI

Una vez más las personas, grupos y plataformas que conformamos Hezkuntza Plataformen Topagunea hemos visto la necesidad de comunicar nuestra postura ante la grave situación que está padeciendo nuestra educación.

- Siguen aplicando la LOMCE, con ese mismo nombre o con el de Heziberri. Haciendo caso omiso a la comunidad educativa y a la mayoría de los agentes educativos, El Gobierno Vasco y el de Nafarroa han decidido seguir aplicando esas leyes y decretos. Han decidido aplicar e imponer un sistema de evaluación externo. Y esas consecuencias son perjudiciales para el estudiantado y nuestro pueblo.
- Una vez más, las Consejerías de Educación del Gobierno Vasco y del de Nafarroa han dado la espalda a crear nuestro sistema de evaluación propio y educativo y se han posicionado con los objetivos externos aplicando una evaluación/calificación ajena.
- Hemos sabido recientemente que este año también nos pretenden condenar a una carrera alocada de obstáculos. La carrera de obstáculos empezará el 5 de marzo y acabará en junio. 4 meses de exámenes. 6 exámenes:
  - **Diagnóstico de evaluación de ISEI-IVEI en 4º de primaria y en 2º de la ESO**
  - **LOMCE/Heziberri en 6º de primaria y 4º de la ESO**
  - **PISA para el alumnado de 15 años**
  - **La selectividad al terminar el bachillerato**
- Dejando a un lado los de ISEI-IVEI, el resto se deciden fuera de nuestros centros, fuera de nuestro sistema; son exámenes que se aplican fuera de los planes y recorridos de nuestros centros; no tienen en cuenta la realidad individual de los centros y del alumnado. Se deciden en Madrid. Esta situación nos ahoga. Es insostenible.
- Desde HPT estuvimos debatiendo sobre la Evaluación Educadora el curso pasado. Siguiendo esa línea, hoy queremos reafirmarnos a favor de un sistema de evaluación propio para nuestro pueblo. En este sentido, denunciamos la intención de calificar y etiquetar y difundimos la reivindicación de una evaluación educadora.
- Por todo ello, siguiendo este camino, este año también **queremos hacer un llamamiento al planto**. Vamos a hacer planto a los exámenes que se han decidido en Madrid, que se nos quieren imponer y que no tienen ningún valor académico. Planto a los exámenes de 6º de primaria y 4º de la ESO de LOMCE/Heziberri y al de PISA.

